

Elkarrizketa:

AINARA VILLACORTA

> "Indarkeria matxista ardatz duen arren, itxaropenaren aldeko nobela da nirea" 10.or



Laudio

Askotariko eskaintza Gazte Danbadaren egitarauan 3. or.



Sozioekonomia

Lanuzteak egiten hasi dira Imegarren. soldatak ordaintzea eskatzeko 6. or.



Iritziak:

- JULEN ARZUAGA** 2. or.
- RAUL ARZA** 6. or.
- ENEKO GASTAKA** 7.or
- MIKEL AYLLON** 10. or
- ANUNTXI ARANA** 11.or
- ASIER RUBIO** 16.or

Aiaraldeko hamabostekaria
2016 /// Otsailak 18 ///
OSTEGUNA
46. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua sortu dute 40 entitatek elkarlanean



Euskararen normalizazioan elkarlanean eragiteko sortu dute eskualdeko 40 entitatek Euskalgintzaren Kontseilua. Ostiralean jendaurrean aurkeztu zen entitate berriak eragile zein norbanakoen bilgune iraunkorra izatea du xede, bai eta entitate hauen lana eraginkorragoa egitea, gogoetarako foroa izatea eta estrategia komunak adostea ere. Kontseilua osatuta, Aiaraldeko instituzioekin elkarlanerako esparru bat adostea eta partaide berriak bilatzea izango dira hurrengo pausuak.

LANGABEZIA: 467 langabe gutxiago daude, baina prekarietatea da nagusi 6. or.



Argazkia: Javier Ruiz Lili

GOROBELEKO LAINO OPILA
14 kilometroko bide zuria

SORGIN TABERNA

URTEURRENA
2006 · 2016

OTSAILA
OSTIRALA 19

OTSAILA
LARUNBATA 20

21:00 askaria

15:30 futbolin txapelketa

23:00 jamsession

23:30 akerbeltz

Urduñako **Placton** taldeak hasiera emango dio jam sessionari eta aiaraldeko hainbat musikaririk parte hartuko dute

Zuek ere animatu zaitzete. Lotsak astindu eta igo eskenatokirak!!

SORGIN SORGIN SORGIN SORGIN SORGIN SORGIN

Zubiko-Kurajo Kalea, 9 · Laudio ·

_iritzia



Julen
Arzuaga
LEGE BILTZARKIDEA

_Leihotik

Otsailak 13

Eduardo Galeanok idatzi zuen "Brasilen 1964an torturengatik lehenengo hildakoak eskandalu bat suposatu zuen. Torturengatik hamargarren hildakoa ez zen egunkarietan azaldu, ia. Berrogeita hamargarren hildakoa normalizat hartu zen". Euskal Herrian, 1981ko otsailaren 13an torturak Joxe Arregi erail zuen. Eskandalu bat izan zen. Aurretik euskaldunak hil ziren kuartel eta polizia-etxeetan, ostean ere bai. Ez dut esango normalizat hartu zenik, baina hiltzera heldu gabe, milaka izan dira torturatuak herri honetan; normaltasun baten barruan gertatu da hori, gainera. Normaltasun instituzionala, penala, politikoa, soziala. Aiaraldean ere horrela izan da.

Hiru eragile, hiru aktore, dau-
de agertokian:

Torturatuak: ehunka pertso-
na igaro dira izu fisiko eta psi-
kiko horretatik. Batzuk isilpean
(zertarako salatu? Inork ez du
ikertuko), batzuk testigantza pu-
bliko eginik (herriak ezagutu de-
zala), batzuk salaketa judiziala
aurkeztuz. Bixente Malaxetxe-
barriak tortura kasua auzitegian
irabaztea ere lortu zuen.

Torturatuak: hor, gure he-
rrietan barreiatua, irabazlearen
harrotasunez. Ertzaintza, sor-
tutako kalteagatik ardurak har-
tu behar dituen. Guardia Zibi-
la, herri honetatik alde egitera
deitua.

Gizartea: tortura gertutik eza-
gutu dutenak edo beste alde ba-
tera begiratu dutenak. Batzuk
zein besteok torturatuak aitor-
tu, erreparatu behar ditugu.
Bestela, Galeanok esaten digun
bezala, izuarekin bizitzera kon-
denatuak egongo gara: "Maki-
nak (sistemak) irakasten digu
izua onartzen, neguko hotza
onartzen den bezala".



Loli
Etxeko langilea

Langabezi-tasan oso jaitsiera txikia eman dela uste dut nik. Nire alabek 26 eta 30 urte dituzte, eta lana topatu dute. Baina oso kontratu laburreko lanpostuak dira: bi hilabetekoak, lau ordukoak... nire adineko jendearen kasurik, berriz, ez dut ezagutzen.



Gaizka
Informatikaria

Ez, ez da langabezia jaitsi. Ni en-
presa batean nago lan egiten eta
oso langile berri gutxi sartzen
dira. Baina dauden langileak lan
asko egiten daude. Nire enpresan
badago pertsona bat bost langi-
leren artean banatu beharko li-
tzatekeen lana egiten duena. Lana
badago, baina ez da ondo bana-
tzen. Hori da behintzat nik ikus-
ten dudana.



_GALDERA

Langabezia jaitsi dela diote datuek. Hobera egin du egoerak?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



Esther
Administrazio langilea

Langabeziaren jaitsiera hori ez da erreala, nire ustez. Nik baditut langabezian jada lau urte daramatzaten neba eta lagunak, ez dut hobekuntza askorik ikusi. Orain dauden lanak prekarioagoak dira. Egundotako ordu bakan batzuetarako kontratuak izan daitezke.



Begoña
Funtzionarioa

Enplegu prekario asko dago, eta horrek lagundu dezake langabezia mailaren jaitsieran, baina ez iraupen-luzeko enplegu egonkorren sorreran. Hori dela eta, langabezia jaitsi egin dela dioen datua apur bat tranpatia iruditzen zait niri. Langabetu gutxiago daude, bai, baina sortu den enplegua ez da kalitatezkoa.



Joxe
Mantenu langilea

Bai, nabaritzen da jaitsi egin dela. Nire koadrilan lanik gabe zeundenak apurka-apurka badoaz gauzak topatzen. Baina orainsortzen diren lanpostuak dira lehen zeundenak bezalakoak. Kontratu askoz txarragoak dira, definitu gabeak, prekarioagoak eta soldata txikiagoarekin. Kontratu mugagabeekin ezin da ia-ia amestu ere egin.

_gutunak

Gure esku balego!

Kepa Barañano (Gure Esku Dago)

"a gureak egin du" esan zuen pertsona berak "jaioko dira berriak" ere esanda utzi zuen. "Ha caído vencida para siempre esa horrible pesadilla siniestra y atroz que se llamaba Euzkadi" oihu egin zuen Bilboko lehen alkate frankistak 1937ko uz-
tail beroan... eta, hala eta guztiz ere, erortzean berriro jaikiz, gure ametsak arrazoi garbiz egiaztatzen joaten gara. Eta honela (ia) beti euskaldunak, goiari eutsi beharrez, etsiak har ez gaitzan, "ezina ekinez egina" dioen esaera guztiz sinetsita.

Gure esku balego! dioenik asko ere bada gure artean, eta, egon ere, Gure Esku Dago badago. Baina 'bainak' baratzean - eta udaberriaz gero - inork bil-
du zain egonean egon beharrean, eraiten hasiko ba-
gina hobe, ezta?

"Ez galdetu zer egiten duen Aberriak zure alde, galde iezaiozu zeure buruari ea zer egiten duzun zeuk Aberriaren alde" esan zuena ez zen gutarra, egungo euskaldun gazteei galdeka ari zaiela diru-
dien arren. Izan ere, gu, geure geroaren jabe nahi ez badugu, gerorik gabe geratuko gara, gero!

Guk egiten ez duguna, egiten nahiz eginen ez du-
guna, ez du bestek eginen. Gure Esku Dagoen guz-
tia eta bi egin behar dugu, beraz, gure eskuak eta bi-
deak bildu nahi baditugu.

Subirautza ala independentzia?

Jon Urkijo (Laudio)

Euskal Herria egunen batean estatu subirau bat izango da munduan, egun Angolak edo-
ta Finlandiak dituzten estatu-eskubideak izango dituena. (...) Subirautza-politikoak lortzea esta-
tuaren independentziarako/burujabetzarako urrats oso garrantzitsu bat izango da, baina ez definitiboa. Izan ere, gizarte independente/burujabe bat esku-
ratzeak, berau osatzen duten indibiduen independ-
entzia/burujabetasuna eskatzen du, eta hortik oso urrun gaude gaur egun.

Izan ere, konturatu gabe egutegiaren eta agen-
daren menpe bizi gara, zikliko eta automatikoki; ga-
bon zaharretik gabon zaharrera, urteak nola pasa-
tzen diren ia ez dugu ikusten. Telebistak edota er-
lijioek masak kontrolatzeko duten gaitasuna ez da kontu berria, baina herri/autotako jaiak? Pintxo po-
tea? Ihauteariak? (...)

Aurten Gipuzkoan eta Bizkaian egiten hastekoak diren herri galdeketetako galderak ez dakizkit, bai-
na nik beste bat gehituko nuke. Nahi al duzu Euskal Herria estatu independente/burujabe bat izatea, edo soilik estatu subiraua? Zoriontsua izan nahi al duzu herri libre batean edo librea izan nahi al duzu herri libre batean?
(Testu osoa irakurgai www.aiaraldea.eus-en)

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Tirada:
10.000 ale.

Maistasuna:
Hamabostekaria

Lege gordailua:
BI-1230-2013

Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

Publizitatea:
publizitatea@komunika.eus

Web-gunea:
www.aiaraldea.eus

Helbidea:
Nerbioi Kalea 1, 3. esk.

Telefonoak:
Laudio. Araba. 01400

Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g - Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

Graf!k
Grafik Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzaz, z/g - LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Aiaraldea



Ken Zazpik joko du Gazte Danbada. Argazkia: David Herranz

Gatibu, Ken 7, Esne Beltza eta Gose arituko dira Gazte Danbada

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez Bidarte

Gazte Danbadaren egitaraua aurerratu dute. Martxoaren 25etik 28ra bitartean eduki politikoa eta aisialdia uztartuta eskaintza zabalago da herrian.

Hitzaldi, tailer eta kultura eskaintza luze batek hartuko ditu Laudio kaleak. Hitzaldietan, hamaika kontu jorratuko dituzte: gazte boterea, burujabetza, independentzia, internazionalismoa, euskalgintza, amnistia, Ipar Euskal Herriko errealitatea eta abar.

Tailerretako eskaintza ere oparoizango da, eta gai andana jorratuko dituzte: antzerkia, rapa, serigrafia, samurtasuna, sendabelar tailerra...

Eskaintza kulturalak Laudio kale eta txokoak beteko ditu bertso eta poesia saioekin, antzerkiekin, musika emanaldiekin, elektrotxarangekin eta beste hamaika "performancerekin". Garagardo

ekologikoen zein nekazari eta artisau gazteen azokek ere herriko kaleak okupatuko dituzte.

Kontzertuak

Iluntzean eskaintza musikalarren ueña izango da. Martxoaren 25ean, ostirala, Gatibu, Esne Beltza, Afu, Norte Apache eta McOnak taldeak arituko dira oholtzan. Larunbatean, Blaka, Sorkun, Non Servium, Arkada Social eta Juan-txo Skalariaken txanda izango da. Azkenik, igandean, Ken Zazpi, Belako, Gose, Pixontxis, Las Tea Party eta Xutik taldeek joko dute. Talde horiekin guztiekin batera "Oholtza gainean bakerik ez" lehiaketako 15 musika talde irabazleak jardungo dira kontzertuetarako prestatuko duten karpa erraldoian.

Nazioarteko ordezkariak ere egongo da; Hego Afrikatik, Finlandiatik, Andaluziatik zein Brasiletik.

Ikasleen nazioarteko foroaren egitaraua aurkeztu dute



ERREDAKZIOA | Samuel Pasandin

Laudion otsailaren 26an, 27an eta 28an egingo den Forum To Fight Europako ikasle foroaren egitaraua aurkeztu dute gaur. Antolakunde ordezkaritzek ikaslemugimendua eztabaidatzeko aukera izango dute hiru egunotan.

Eztabaida itxiak ez ezik, ekintza publikoak ere gauzatuko dituzte. Larunbatean, foroaren bigarren egunean alegia, egitaraua zabaldu prestatu du Espainiar Estatu nazio zapalduetako ikasle antolakunde Para Los Pueblos dinamika. Foroaren eduki politikoari dagokionez, Italia eta Suediako ikasle borroken berri edota nazio zapalduetako ikasle eta askapen mugimenduez mintzatuko diren hitzaldiak emango dituzte, besteak beste. Horrez gain, YXK antolokunde kurduak konfederalismo demokratikoan oinarritutako ikasle borroken inguruko hitzaldia eskainiko du larunbatarratsaldean. Aisialdirako parada ere egongo da; izan ere, dantzaldia eta kontzertuak izango dira Laudion larunbatean.

Nazioarteko esparrutik honako hauek egongo dira, besteak beste: Turin eta Palermoko Collettivo Universitario Autonomo, Italiako Noi Restiamo, Suediako Vänsterns studentförbund VSF, Tarragonako Ass. EduPsico URV, Madrilgo Federación Estudiantil Libertaria eta Norbegiako Rod Ungdom.

Amurrio

Frontoi kaleko obren proiektua idazteko lanak esleitu dituzte



17.847,5 euro bideratuko dira obrara. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

STOA, S.L. ingeniari enpresa arduratuko da Frontoi kalearen obren inguruko proiektua idazteaz. Udalak 17.847,50 euro eskaini dizkio horretarako.

Proiektuak kale osoa berritzea, trafikoa berrantolatzea, oinezkoentzako eremu berriak sortzea eta instalazioak berritzea barne hartuko ditu. Horrez gain, herriko instalazio eta zerbitzu guztiak ere berrituko dira: ura, saneamendua,

komunikabideak, argiteria, elektrizitatea... Josune Irabien Amurrioko alkatearen arabera, "herritarrek lehentasuna izan behar dute herriko erdigunean; izan ere, proiektu honekin eremu horren bizi-kalitatea hobetzea aurreikusi da, baita gunea erakargarriagoa bihurtzea ere, saltegien bizitasuna handitzeko eta kutsadura mailak murrizteko". Udalak hurrengo asteetan abiatuko du proiektuaren bigarren fasea.



NORABIDE ALDAKETAK: Amurrioko udalak Abiaga eta Maskuribai kaleetako auto norabideen lehentasunak aldatu eta seinalizatuko ditu. Abiagatik joaten direnek izango dute orain lehentasuna eta Maskuribaikoez itxaron beharko dute.

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARGANTZUN ARTIKO 2016 FINAL-JAIA

MARTXOAK 12, LARUNBATA

16:30ean, **BERTSO-SAIO MUSIKATUA**

11:00etan, **AUTOBUSA**
Gasteizko Iparralde Gizarte Etxean

11:30ean, Argantzun plaza, **HITZORDUA**

12:00etan, Herri osoan zehar.
Bat-bateko eta idatzizko taldeekin **ERRONKAK**

14:30ean, **BAZKARIA**, plazan
(Eguraldi txarra eginez gero frontoian)
Elkartera: 675-707-971

17:15ean, **BERTSO-GUDA**

18:30ean, **ELEKTROTXARANGA**
herrian zehar

20:30ean, **BOGEGILLAS**
SOUND-SYSTEM
BERTSO RAGGA
Aroztegi tabernan

www.bertsozale.eus/araba

_herriz herri

Urduña



1516an onartu zen batzarra arautzen duen testua. Argazkia: aiaraaldea.eus

500 urte beteko ditu aurten Larruazabalgo administrazio batzarrak

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Larruazabalgo Batzarrak 500 urtemuga beteko du aurten. Urteurrena ospatzen duten aurreneko aldia da, Jose Ignacio Salazar historialaren hitzetan.

Prestaketei heltzeko lan talde bat osatu dute udalarekin, maiatzean zehar hiru ekitaldi antolatzeko. Horien artean daude jardunaldi historikoak, liburu baten argitalpena eta batzarrak egiten ziren tokian Gernikako zuhaitzaren kimua landatzea.

Izan ere, 1516ko maiatzaren 4ean onartu zen Larruazabalgo Batzarra arautzen duen testu juridikoa. "Belandia eta inguruko herrietako dokumenturik zaharrena, baina, XIII. mendekoa da. Batzarra haritz baten ondoan egiten zen", erantsi du adituak.

Bizkaiko batzarrak

Lau kontzejuk -Bizkaiko bakkarrak- osatzen dute Larruazabalgo: Lendoñogoitik, Lendoñobeitik, Mendeikak eta Belandiak. "Eraikunde honek bertako ondasunak, eskubideak, ohiturak... defendatzen zituen (eta ditu) bestelako instituzioen aurrean, Urduña udalaren aurrean, esate baterako".

Arrankudiaga

Gazte Asanbladak kudeatuko du astean zehar Gizarte Etxea



Igandean egin zuten junta berria osatzeko bilera. Argazkia: aiaraaldea.eus

ERREDAKZIOA | Markel Iturrizar

2015. urteabukatzeara batera, Naiara Albizuak eta David Medierok euren ardura bukatutzat eman zuten, bost urtez Arrankudiaga-Zolloko Gizarte Etxea auzo elkarreko aste barruko laguntzailerarduradun gisa.

Orduan, zerbitzua betetzeko izen berriak emateko epea zabal-

du zuten eta herriko Gazte Asanblada izango da aurrerantzean astean zehar laguntzailerarduradun berria. Astelehenean ostiraleraz geroztik ostiraleraz geroztik gazteen artean kudeatuko dituzte taberna eta gainerako ardurak. Gainera, igandean junta berria osatzeko bilera egin zuten Gizarte Etxean.

Euskadiko Agility txakur lehiaketa Urduñan jokatu da



Abuztuaren 19tik 24ra izango da lehiaketa.

ERREDAKZIOA | Andima Landaluze

Euskadiko Agility txakur proba egingo dute abuztuaren 19 eta 24 bitartean Urduñan. Euskadiko Agility Klubak antolatuko du txapelketa eta parte-hartze handia espero dute. Aurreko edizioetan

ko txakur kopurua aintzat hartuta, aurten 300 partaide inguru egotea aurreikusi dute antolatzaileek.

Lehiaketak sei eguneko iraupena izango du, eta hainbat maila izango dira, txakur motaren arabera; egunero banakako probak egongo dira. Txakurrek hainbat oztupo dituen zirkuitua bete beharko dute proba bakoitzean. Txapelketaren 5. edizioa izango da. Estatuko Agility probarik nagusienetako bat da, eta 2017ko Espainiako txapelketarako balio izango du. Europako hamaika txokotako txakurrak izango dira lehiatzen, eta nazioarteko epaileekin gauzatuko da proba.

Lapurreta bi gertatu dira herrian azken asteetan

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Azken asteetan bi lapurreta jazo dira Arrankudiagan. Duela bi aste buru, herrigunea zeharkatzen duen errepide alboko urbanizazioan pertsona bat edo gehiago etxebizitza batean sartu ziren eta zenbait bitxi lapurtu zituzten.

Jabeak berehala ohartu ziren; etxera itzuli zirenean lehoa apurtuta eta atzeko atea irekirik ikusi zuten eta euren susmoa da ebaslea edo ebasleak barruan zeudela oraindik. Gertakariaren aurretik inguruetan ikusi zuten pertsona susmagarri baten deskripzioa eman diote herritarrek Ertzaintzari. Po-

liziak ikerketa abiatu eta azaldu du jarrera oso lagungarria izan dutela herritarrek. Horrez gain, asteazkenean Iberlandako kirol azpiegituraren ere lapurreta gertatu zen.

2015eko datuak

Ertzaintzak adierazi du 5 lapurreta salatu zirela Arrankudiaga-Zollon 2015ean eta guztiak argitu dituztela. Segurtasun Sailak jakinarazi die herritarrei 94.406.38.60 edota 112 telefono zenbakietara dei dezaketela auto edo pertsona susmagarriren bat ikusiz gero.

USHUAIA

Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · PERFUMERIA · OSAGARRIAK

Arazo kapilarrak? Ile-erortzea? Zolda, grasa edo azkura?



KONTSULTA eta DIAGNOSTIKOA
DOHAINIK, MIKROKAMARA
ERABILITA

Eskatu hitzordua 945 89 08 41

BEHIN BETIKO DEPILAZIOA - SAUNA - SOLARIUMA

Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería



• PSIKOTERAPIA

(Helduak/haurrak): antsietatea, depresioa, estresa, izaki maitatuen galera, trauma sexualak, jelsokortasuna, tratu txarrak, agresibitatea, heziketa emozionala, eta abar.

• HAZKUNTZA PERTSONALA

"Zure bizitza aldatzeko 40 egun" ikastaroa: pentsamendu positiboa, ekintza kontziente, indarra, segurtasuna, ziurtasuna.

• HAZKUNTZA TRANSPERTSONALA

Meditazioa, barkamen sakona, errukia. "Gainditzeko 40 egun" ikastaroa: bizitzaren onarpena, eskertasuna, jakintza mugagabea.

LUCÍA AMALTEA GARCÍA GETE PSIKOLOGOA KOL. BIO3431 LARRINAGA KALEA, 1.SOLAIRUARTEA, B-AMURRIO



_herriz herri

Laudio

Bidezarreta 12ko eraikina botako du Udalak sei hilabeteko epean

ERREDAKZIOA |

Aitor Fernandez de Pinedo

Laudioko Udalak Aretako Bidezarreta kaleko 12. zenbakian dagoen eraikina botatzeko azken izapideak zehaztu ditu otsailaren 12an egindako Gobernu Batzordean. Prozesua sei hilabeteren bueltan amaituta egoteko konpromisoa agertu du Jon Ander Altubek, hirigintza arloko zinegotzi ordezkariak.

Bidezarreta kaleko eraikinarren eraispina bere gain hartuko du Udalak, era subsidiarioan, orubearen jabeekin adostutako hitzarmena garatuz. Horrez gain, orubearen 53 metro karratuko lursaila eskuratuko du Udalak hirigintza sistema orokorren erabilpenerako.

Eraikina botatzeko proiektu teknikoa ebatzita dauka dagoeneko Udalak eta bi hilabeteko epean esleituko ditu lanak, orotara sei hilabete iragarri dituelarik eraispina




Eraitsiko duten eraikina Bidezarretan 12 kalean. Argazkia: aiaraldea.eus

na amaituta egoteko. 1983. urteaz geroztik luzatu den eraikineko jabearen eta Udalaren arteko desadostasuna konponduko du hitzarmenak. Botako den eraikina urte hartako uholdeek eragindako kalteak konpontzeko egindako lane-

tan kaltetu zen eta horrez geroztik erortzeko zorian izan da. Hiri-antolamendutik kanpo dago eraikina eta egoera argitzeko jabearen eta Udalaren arteko negoziaketa luzatuz joan da, tartean Arartekoaren ebazpen bat ere izan delarik.

Orozko

Ideia Lehiaketa gazteek enpresak sor ditzaten



Ekintzaileak lanean.

ERREDAKZIOA | Lukas Pasandin

Orozko Udalak jakinarazi du "Emprendethea" izenarekin abiatu dutela hirugarrenaldiz gazteentzako ideien lehiaketa; eskualdeko 18 eta 29 urte bitarteko pertsonentzat da. Nerbioi Ibaizabalgo gazteei zuzendua dago, Arakaldo,

Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Urduña, Orozko, Ugao eta Zaratamo udalerrien babesarekin. Ekintzailatza sustatu eta enpresa-proiektuen sorrera bultzatuko dute, alegia, gerora, gazteak aritzeko enpresa-haztegitan.

Telefonicak ez du Latorroko antena mugitu beharko



ERREDAKZIOA |

Gasteizko administrazioarekin auzien 3 zenbakidun epaitegiak arrazola eman dio Telefonicari eta, ondorioz, enpresak ez du Latorron daukan antena mugitzeko beharrik. Udalak ordenantza berria sortu zuen 2011n antenak herrigunetik aldentzeko, eta 2014ko apirilean Telefonica Moviles de Españari agindu zion Latorrotik kentzeko antena; San Bartolomera eraman zezan. Lehenik eta behin, enpresak helegitea jarri zuen udalean eta, geroago, abokatuen esku utzi zuen auzia. Orain, epaitegiak enpresaren aldeko erabakia hartu du.

Negoziaziorako deia

Jon Ander Altube alkateordeak adierazi du lanean jarraituko dute la telefonikak antena lekuz aldatzea, eta enpresarekin negoziatzeko prest daude. Altubek argi utzi du ordenantza indarrean dagoela eta epaileak ez duela indargabetu.

Menpekotasun Planak komunitatean eragin nahi du

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Udalak aurkeztu du 2015-2019 Menpekotasun Prebentzio Plana, eta adierazi du zein den bere helburu nagusia: komunitatea baliatzea menpekotasunei aurre egiteko.

Horretarako, Laudio Udalak elkarlanean arituko da komunitateko hainbat eragileekin: familiekin, aisialdiari lotuta dauden lokal eta ekimenekin, osasun zentroekin, ikastetxeekin... Xedea izango da adingabekoei ohitura osasuntsuak irakastea, komunitate baliok eta giro normalizatuak oinarritzat harturik.

Aldi berean, udalaren asmoa da aholkularitza zerbitzua eskaintzea; aurrez aurrekoa zein Internet bidezkoa.

Menpekotasun anitzak

Oro har, jendeak menpekotasuna eta drogak lotzen ditu. Hala ere, prebentzio planak beste eragin eremuak ere jorratuko ditu: bideojokoak, apustuak, on-line jokoak eta sare sozialak, hain zuzen.

Izan ere, adingabekoengan arazoak sortzen ari dira teknologia berri horiek direla-eta.

Artziniega

Hasi dituzte A-4624 eta A-2601 konpontzeko lanak

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Hasi dituzte A-4624 eta A-2601 errepideen konponketa lanak. 8 hilabeteko iraupena izango dute, eta 1.282.177,94 euroko aurreikuspena.

Lanen xedea da kirol eta hezkuntza eremuko, zein Elexpe, La Barrena eta La Hormazako irisgarritasuna hobetzea. Zubiaren zabalera handituko dute, eta horrek

suposatuko du, udan, 84 orduz (3 egun baino gehiago) moztuko dutela trafikoa.

Udalak 300.000 euroko ekarpena egingo du. Gainerakoa Arabako Foru Aldundiak ordainduko du. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Landa Eremuko Sustapenerako Sailak ere diruz lagunduko ditu lanak.



asesores

elkarlan

www.elkarlan.eu

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat

www.elkarseguro.com



_jendartea



Raul
Arza
UGT

_Argia

Euskal soluziorik gabeko euskal arazoa

Azken hamarkadetan hainbat eztabaida ikusi izan ditugu pentsioen sistemaren finantziarioaren eta bideragarritasunaren inguruan. Eztabaida interesgarri bezain interesatuak, polemikaz inguratuak. Alde batetik, badaude pentsio pribatuen alde egiten duten interes finantziarioak eta, bestetik, "sistema propioak" defenditzen dituzten alderdi nazionalistak. Argi dagoena zera da: sektore batzuek aldatu nahi duten arren, sistemak ez duela porrot egin. Eta arazo nagusia ez da jaiotza kopurua, enpleguaren kalitatea eta egoera ekonomikoa, baizik eta behin-behinekotasuna eta soldata baxuak. Gure Gizarte Segurantzak krisi ekonomiko larri baten ondorioak sufritu ditu, eta baita austeritate politika batzuen ondorioak ere. Langabezia, langile aktiboaren murrizketa, langileak merkeagoak diren beste batzuegatik ordezkatzea, aldi baterako kontratazio gehiago egotea, soldaten debaluazioa, behin-behinekotasun gehiago... ondorio ugari ekarri dituzte austeritate politika horiek. Gaur egun, hiru euskal lurraldeak lehenak dira Espainiako pentsioen ordaintzen "ranking"ean, baina geroz eta handiago den defizit bat ari dira pilotzen, iaz 2.000 milioi eurokoa izan zena. Datu horiekin zaila da "sistema propio bat" ezartzean pentsatzea. Nahiko lan zaila dirudi pentsioak mantentzea Estatuaren Gizarte Segurantzaren "kutxa bakarra" mantentzen ez bada. Hori dela eta, premia dago alde guztien arteko eztabaida bat egin eta kontsentsu batera iristeko, pentsio publikoak guztientzako bideragarriak izan daitezzen, zergen bidez ordainduak izanda ere.

Langabeziak behera egin du, baina prekarietatea nagusitu da

3072 langabe kontabilizatu ditu Lanbidek Aiaraldean urteko lehen hilabeteetan, iazko urtarrilean baino 462 gutxiago. Sortzen ari diren lanpostuak, baina, ez dira egonkorak, kontratuen % 5,8 baino ez baita mugagabea.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Langabezia jaitsi egin dela diote datuek. 2015eko urtarrilean 3.539 langabe zeuden Lanbiden erregistroan. Aurtengo urtarrilean, baina, 3.072 kontabilizatu ziren. Hau da, 467 gutxiago.

Jaitsiera bat eman den arren, langabezi-tasa altua izaten jarraitzen du eskualdean. Eskualdeko bi herri populatuenean, hau da, Laudion (% 17,3) eta Amurrioren (% 15,7) tasak EAEko bataz-bestekoaren (% 14,6) gainetik daude.

Emakumeak, kolpatuen

Badaude horrenbeste aldatu egin ez diren beste gauza batzuk ere. Emakumeena jarraitzen du izaten langabeziak gehien kolpatzen duen sektorea, langabetu guztien % 56a baitira.

Adin-tarteen arabera ere aldatuz doa langabezi-tasa. Langabetu gehienak (1.491) 25-44 urte artean dituzte. Beste 1.437 langabetu 44 urte baino gehiago dituzte eta azken 144ak ez dira 25 urtera iristen.

Langabetu gehienak (1.902) zerbitzuen sektoreko langileak dira, 493 industriako langileak dira, 258 eraikuntzakoak eta beste 91 nekazaritza sektorekoak. Azken 328ak, baina, aurretik lanposturik izan gabekoak dira.

Prekarietatea nagusi

Langabetu kopuruak behera egin duen arren, horrek ez du lan



2015eko urtarrilarekin alderatuta, 462 langabe gutxiago daude eskualdean. Argazkia: aiaraldea.eus

Urtarrilean sinatu ziren kontratuen % 94,5 aldi baterakoak ziren

merkatuaren egonkortze batek aurrera. Prekarietatea da nagusi lanpostu gehienetan. Hori erraz ikusi daiteke urtarrilean eskualdean sinatu ziren lan-kontratuen kopuruei erreparatu gero: 1.653 kontratutik 91 (% 5,5) baino ez ziren mugagabeak. Gainontzekoak (1.562) aldi batekoak ziren.

Gauzak ala, epe laburreko kontratuak dira nagusi. Laudion, adibidez, 31 egunekoa da bataz besteko kontratua. Urduñan, berriz, 8 egunekoa baino ez.

3.072

LANGABETU AIARALDEAN

- OKONDO 70 (% 10,2)
- ARAKALDO 8 (% 9,1)
- URDUÑAN 287 (% 13,7)
- LAUDION 1.516 (% 17,3)
- AMURRION 817 (% 15,7)
- AIARAN 129 (% 8,5)
- ARRANKUDIAGA 39 (% 7,6)
- ARTZINIEGAN 118 (% 12,7)
- OROZKON 88 (% 6,7)

Lanuzteak Imegarren, ordainsarien atzerapenengatik

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Laudion kokatua dagoen Imegar enpresako langileek lanuzteak egiteari ekin zioten astelehenan (otsailak 15).

Nominen ordaintzetan dituzten atzerapenengatik ekin diote mobilizatzeari. "Duela bizpahiru urtetik hona era jarraitu batean izaten ari garen arazoa da soldatak atzerapenarekin jasotzearena", azaldu du LABen ordezkaria den Iñaki Isusik, "eta azkenean edalontziak gainetza egin du".

Enpresari zenbait alternatiba proposatu dizkiote: "soldatabi edo hiru zatitan ordaintzea, adibidez".

Baina, salatu dutenez, enpresak ez die kasurik egin langileen eskariei. "Ordaintzetak egiteko orduan zerrandaz azkenak gara langileak", salatu du Isusik.

Momentu honetan "kalitatezko paga" deritzona eta urtarileko nomina zor dizkie enpresak langileei.

Soldatak ordaintzeko zailtasunak enpresak dituen zor batzuen ondorio dira. "Makina berri batzuk erostean sortu zuten zorra.

Baina euren errua da hori", azaldu du Isusik, eta gaineratu du makina horiek ez dutela hasieran uste zen bezain ondo funtzionatzen.



Lantegiaren aurrean jarri dira langileak lanuzteetan. / aiaraldea.eus

Herrira jaisteko asmoa

Lanuzteak egiten jarraituko dute langileek. Bi lanuzte ari dira egiten egunero, txanda aldatetean. Gaur (otsailak 18) herrira jaisteko asmoa dute, merkatua dagoela baliatu-

ta herritarrei euren egoeraren berri emateko. Otsailaren 29ra arte dute lanuzteekin jarraitzeko asmoa. Ordurako enpresak keinurik egingo ez balu, asanblada batean erabakiko lukete zer egin.

Euskalgintza Kontseilua eratu dute, euskararen normalizazioan elkarlanean eragiteko

Iragan ostiralean egin zen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren eraketa batzarra, Laudioko Kultura Etxean. Oso eremu ezberdinetako 40 taldek osatu dute kontseilua, eta eragile gehiagoren inplikazio bilatzeko asmoa dute.



40 pertsonatik gora bildu ziren kontseiluaren eraketa batzarrean. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

40 erakundek sortu dute Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua. Horien artean ikastetxeak, kirol eta kultur zein euskara elkarteak daude. Kontseilu osatu berriaren helburu nagusia euskararen normalizazioaren alde elkarlanean aritzea izango da.

Horretarako, ahalik eta eragile gehien elkarlana sustatuko du kontseiluak. Erakunde berriak adierazi du bere xedea dela Aiaraldeko euskararen normalizazioaren alde urratsak[®] eman nahi dituzten eragile zein norbanakoen bilgune iraunkorra eta gogoetarako gunea izan nahi du Kontseiluak, bai eta entitate bakoitzak egiten duen lanaren eraginkortasuna bilatzea ere.

Ibilbide luzea

Eraketa batzarra pasa den ostiralean, otsailak 12, egin zuten Laudioko Kultura etxean, baina puntu horretara heltzeko, lan handia egin dutela adierazi dute kontseiluko eledunek. Duela urte batzuk abiatu zituzten bilerak; udalerriz udalerriz euskararen egoeraren azterketa egin, eta bi ondorio nagusi agertu ziren: euskara-kirola eremua lehentasunezko lan-esparrua dela eta normalizazioaren bidean eragile ezberdinak elkarlanean aritzeko gune bat osatu beharra zegoela. Gune hori da, hain zuzen ere, ostiralean Laudioan sor-

Hizkuntzaren normalizazioan parte hartzen dutenen edo parte hartu nahi dutenen bilgune iraunkorra eta gogoetarako gunea izan nahi du Kontseiluak, bai eta entitate bakoitzak egiten duen lanaren eraginkortasuna bilatzea ere

tu dutena. Kontseiluaren funtzionamendua eta ezaugarritzea prestatzeaz gainera, azken bizpahiru hilabeteko egitekoa izan da elkarte (hezkuntza, ekonomia, instituzioak, aisialdia, kultura...) ezberdinen atxikimendua eta parte-hartzea bideratzea, bai eta Aiarako Kuadrillako presidentearekin eta udaletako alkateekin zein euskara teknikariek bilerak egitea egitasmoa aurkezteko eta kontseiluari babesa eman eta elkarlanean aritzeko gonbitea egiteko.

Sustatzaileek adierazi dutenez, instituzioek harrera ona egin diote proiektuari eta datozen hilabeteetan kontseiluaren eta 10 instituzio (Kuadrilla eta udalak) horien arteko elkarlan-esparrua zehaztea da euren asmoa.

Etokizuna

Batzar eratzailaren ondoren, Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluak maiatzean izango du hurrengo batzarra. Ordurako, gaurko kontseiluan izendatutako talde eragileak 2016ko plangintza eta aurrerontua, elkarlearen legeztatzea, instituzioekiko hitzarmenak eta beste zenbait lan gauzatuko ditu.

BIDEOA: Kontseiluko parte hartzaileen hitzak



Hiztegi lagungarria
Urratsak[®], pausoak

40 ERAGILEREN KONPROMISOA

- OROZKOKO ERDU EUSKARA BATZORDEA
- URDUÑAKO ESKOLA
- OKONDO ESKOLA
- ARRANKUDIAGA ESKOLA
- AUDIO BHI INSTITUTUKO HNP TALDEA
- URDUÑAKO AINTZINAKO ANDRA MARI IKASTETXEA
- VIRGEN NIÑA IKASTETXEA
- ERDU GUGAZ ARRANKUDIAGAKO ESKOLAKO GURASO TALDEA
- AIARA DANTZA TALDEA
- LATIORRO ESKOLA
- LAUDIOKO UDAL LANBIDE HEZIKETA IKASTETXEA
- OROZKOKO ESKOLA
- ETXAURREN IKASTOLA
- LAUDIOKO UDAL EUSKALTEGIKO LANGILEAK
- LA MILAGROSA IKASTETXEA
- AMURRIOKO PILOTA ELKARTEA
- GOIKOGANE MENDI TALDEA
- AIARAKO EUZKO GAZTEDEI (EGI)
- LAUDIOKO GAZTE ASANBLADA
- AIARALDEKO ERNAI
- AIARALDEKO BERTSO ESKOLA (AIEBE)
- AIARAKO LAB
- AIARAKO ELA
- AIARAKO STEE-EILAS
- NERBIOI ERRUGBY TALDEA
- LUCAS REY ESKOLA
- BELAIKI EUSKARA ELKARTEA
- MENDIKO LAGUNAK MENDI TALDEA
- ZARA OBE INSTITUTUA
- ARTEKO GURE AMA ESKOLA
- LAMUZA ESKOLA
- AIARAKO AEK
- AIARALDEKO BERBALAGUNAK
- AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEIHOA
- ARESKETA IKASTOLA
- AUDIO IKASTOLA
- BASALARRINA EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA
- ZABALEKO ESKOLA
- LAUDIOAR TXIRRINDULARI ELKARTEA
- AIARAKO HOGEITALAU ELKARTEA



Eneko
Gastaka
POLITOLOGOA

—Hankamotz

Fuegos
Reunidos SL

Urtarrila beroa Tubos Reunidos enpresaren Amurrioko lantegian. 3 sute 12 egunen buruan; langile zaurituak, eba-kuazioak, tresneria hondatua eta nabe suntsitua, ekoizpenaren etenaldi eta lekualdatzeak, isurketak eta ke-lainoak ondorio gisa.

Azken horiek, beste batzuen artean, enpresaren galeren azpian ezkutaturik geratuko dira komunikabide handietan, enpresa handien eragina nabarmenagoa baita enpresa handi diren talde mediatiko handien (nahiz eta benetan ez dituen enpresak ordainduko, langileek eta gizarte osoak baino, bai dirutan baita ondorioetan ere).

Salaketa batek sugarren artean sartzea lortu du, LAB sindikatuak jarritakoak, alegia, segurtasun neurriak bete ez zirela argudiatuta.

Jasotako informaziotik aterata daitezkeen ondorioak ez da biltza hortik urrun, ez baitirudi normala lau egunetik behin sutea egotea hilabete erdian zehar, bereziki arriskutsuak diren operazioetan ikuskatzaileek konoetan ura egonda onarpena ematea edota ustez mantentze eguneratua jasotzen duten tresnek bat-batean su hartzea.

Tubos Reunidos SA enpresak nazioartean eraikita duen sarean, non batez ere salmenta herrialde askotan dibertsifikatzen den, argi dago hondamendi horiek eragin dako kostuak ez direla akzionista eta kontsumitzaile handien erantzukizun izango, haiek baitira irabaziak kudeatzen dituztenak. Nork itzaliko ote du langileak eta gizarteak jasango duten sutea?

Erreportajea



Hamalau kilometroko luzera izatera iritsi daiteke Gorobelgo laino opila, ohiz kanpoko egoeratan. Argazkia: Javier Ruiz Lili

Laino opilaren barnera bidaia: Usteak, mitoak eta zientzia

Aspaldi kontatzen zen herensuge bat Gorobelgo laino opila noiz sortuko zain egoten zela aiaraldearrak erasotzeko. Munstro horren existentzia mito huts bat da, baina laino opilarena ez: baldintza orografiko eta meteorologiko oso zehatz batzuek eragindako fenomeno natural ikusgarria da.

ERREDAKZIOA | Naturayala

Kondaira zahar batek dionenez, Txarlazoren azpiko baso sakonean herensuge bat bizi zen, eta ingurutik igarotzen ziren gizakiak jan egiten zituen erruki barik, batik bat, laino opila Urduñako harkaitzei atxikituta⁽¹⁾ geratzen zenean. Herensugea Euskal mitologiaren jeniorik nabarmenetakoa da, ahotik sua eta begietatik pozoia botatzen zuena. Eskualdeko populazioa izuturik zeukan eta hondamen ikaragarrien sortzailea zela uste zuten Urduñan.

Ahoz-ahoz etabalaunaldiz-belaundaldi kontatu izan den elezahar⁽¹⁾ horrek agerian utzi digu laino opilak duen misterioaren sustraia oso sakonak direla. Gaur egun, XXI. mendean gaudela, zientziara jo dugu fenomenohau hobeto ulertzeko. Onintze Salazarrek, Euskalmeteko meteorologoak, baieztatu digunez, "laino opila udazken eta neguko antizikloiek in sortzen da, eguraldia egonkorra denean, zeruak garbi daudenean, tenperatura baxuekin eta haize leunaren hegoaldeko ukituarekin.

Kotoizko hodei-jauzia

Egoera horretan Losa haranean inbertsio termiko baten ondorioz sortzen den behe-laino trinko eta pisutsua arrastaka mugitzen da hego haizeak bultzatuta Gorobel mendilerroko gailurretaraino. Eta amilde-

Ohikoa ez den egoeratan lainoak Gorobelgo amildegi osoa bildu dezake, Nerbioiko ur-jauzitik Eskutxiko tontorreraino, hamalau kilometroko laino-jauzia sortuz

gira heltzean salto egiten du hala-beharrez, iparreko mendi-hegal erdiraino kotoizkoa dirudien hodei-jauzi erraldoia sortuz. "Baina hodei hotz hori maldan behera jaisten hasten denean, bailaratik gora igotzen den aire epelagoarekin topatzen da. "Ondorioz, behe-laino hori desegiten edo desagertzen hasten da, aire epelak lainoaren ur-tanta txikiak lurruntzen baititu", dio Onintze Salazarrek.

Temperatura ezberdinetan dauden haize-korronte bi hauen arteko topaketa gozo-gozo amaitu daiteke, baina sarritan jira eta bira eten-gabe dabilen hodei-zurrunbiloa azaltzen da.

Laino opila dozena erdi aldiz agertzen da urtean zehar, gauetz zein egunez, eta amildegira atxikituta dagoen denbora aldakorra da. Batzuetan ordu batzuk besterik ez da geratzen; bestetan, egun luzeak eman ditzake, sortarazi duten baldintzak desagertu arte, alegia.

Epe horretan Urduñan eguzkia da nagusi, baina menditik datorren haize hotzak sortzen duen egoera sano⁽²⁾ desatsegina da. Hodeiaren barruan, berriz, airearen hezetan erlatiboa erabatekoa da eta ez dago ikuspenik.

14 kilometroko luzeera

Laino opilaren tamina ere aldakorra da. Gehienetan Txarlazo inguruan

Horrelako laino berezi gutxi daude munduan. Baldintza meteorologiko eta orografiko antzekoak eman behar dira

ageri da, Urduñako mendatetik Txolopeko gailurrera bitartean, hau da, lau bat kilometro estaliz.

Ohiz kanpoko egoeratan, aldiz, lainoak Gorobelgo amildegi osoa bildu dezake, Nerbioiaren ur-jauzitik Eskutxiko tontorreraino, hamalau kilometroko laino-jauzia sortuz.

Edozelan ere, zortedunak garabebetan aparta den fenomeno honetaz etxean bertan gozatzeko aukera dugulako. Onintze Salazarrek dioenez, "ez da erraza holako laino bereziak munduan aurkitzea, izan ere orografiak eragindako fenomeno bat denez, antzeko orografia eta antzeko egoera meteorologikoak eman behar dira".


Halere, badira ezagunak diren beste batzuk ere, adibidez, Tarragonan (han laino opilari La peluda esaten diote), La Palman (Kanariar Uhartean), Lurmutur Hirian (Hegoafrika), Malibun (Kalifornia, AEB), Ipar Carolinan (AEB) edo Ternuan (Kanada). Hodei-jauzi guztiak dira oso erakargarriak, baina dudabarik Urduñakoa ikusgarrienetakoa izateaz gain, bere baitan herensuge itzela gordezten duen bakarra da.

Hiztegi lagungarria

Elezahar⁽¹⁾, kondaira / Atxikituta⁽²⁾, lotuta / Sano⁽³⁾, oso.



Sentsazio termikoa erraz jaitsi daiteke -20 graduetara. Argazkia> Javier Ruiz



Paisai ederrak sortzen ditu laino opilak. / Javier Ruiz Lili eta Naturayala

Den-dena izoztua

0-6 gradu bitarteko temperatura egon ohi da laino opilaren barruan, baina sarritan hoztu egiten da giroa, eta izoztu paisaia. Azken sei urteetan erregistratu den temperatura minimoa -4 gradukoa izan da, baina sentsazio termikoa -20 gradukoa izan daiteke.

ERREDAKZIOA | Naturayala

Laino opilaren barneko tenperatura ere ez da beti bera izaten. Euskalmetek Txarlazoren tontorrean (934 m), duen estazio meteorologikoan hartutako datuen arabera, gehienetan 0 eta 6 graduren arteko temperatura izan ohi da.

Lantzean behin, halere, hotzak inguruan dagoen ura izoztu egiten duenean, paisaia zuriz janzten da. Orriak, adarrak, enborrak, harriak, alanbreak, hesolak... airean dagoen guzti-guztia izoztu egiten da, eta askotan hainbat zentimetroko izotz zatiak sortzen dira, haizeak modelaturik, korronteak markatutako norabideari begira.

Hodei berezi honen barruan izaten den temperatura zeropetik 18

Sentsazio termikoa -20 gradura iritsi daiteke laino opilaren barruan, haizearen ondorioz

gradukoa izaten dela dio urduñaren artean oso zabaldua dagoen beste uste batek. Alabaina, azken sei urteotan Txarlazon laino opilaren barruan neurtu den tempe-

ratura minimoa -4 gradukoa izan da, 2013ko abenduan.


Horrez gainera, Meteorologia Euskal Agentziak toki horretan temperatura neurtzen duenetik (2001) erregistratu den minimo absolutua-laino opilarekin edo laino opilik gabe -8,7 gradukoa izan da (2005ko otsaila). Sentsazio termikoa laino bitxi honen baitan, berriz, erraz hel daiteke -20 gradura dabilen haizearen ondorioz. Izan ere, normalean hego-mendebaldetik jotzen du, 40 eta 70 km/orduko bitarteko abiaduraz.

BIDEO IKUSGARRIA: Laino opila, barrutik




MUNDUKO LAINO-OPILAK

Fenomeno arraroa da Gorobelen sortzen den laino opila. Baldintza orografiko eta meteorologiko jakinak egon behar dira izara zuria zabaldu dadin. Hala ere, munduko beste hainbat txokotan ere badaude antzeko fenomenoak sortzen dituzten lekuak.



The table mountain
Lurmutur Hirian (Hego Afrika)




Cumbre Nueva
La Palma (Kanariar Uharteak)



Newfoundland
Ternua (Kanada)



Black Mountain
Ipar Karolina (AEB)



La Peluda
Tarragona (Katalunia)

_kultura

LITERATURA

“Nobelan indarkeria matxista jorratzea erabaki nuen, emakume naizen aldetik eragiten baitit”

AINARA VILLACORTA (Amurrio, 1978) Melillan bizi da orain eta bertan idatzi du *Azul tormenta, lluvia añil*, argitaratu duen lehen eleberria. Indarkeria matxista du ardatz liburua. Bere bigarren liburua izango dena prestatzen ari da orain.



Gaur egun Melillan bizi da Villacorta. Argazkia: Hauxe Da

ERREDAKZIOA I

Azul tormenata, lluvia añil da argitaratzen duzun lehenengo eleberria, baina ez idazten duzun lehenena. Zerk bultzatu zaitu hau argitaratzera?

Gehienbat prest nagoelako liburua argitaratu eta zabaltzeko. Aurretik idatzitako liburuei zerbait falta zitzaion. Gozatzeko idatzi nuen aurreakoa, baina ez nengoen prest jendearekin partekatzen.

6 edo 7 urte nuenetik idazten dut; ipuinak eta umeentzako liburua idazten hasi nintzen.

Liburu hau idazten hasi zinenean erabaki zenuen argitaratzen saiatuko zinela?

Egia esanda, liburua bukatu baino lehen erabaki nuen; mamitzen ari nintzela ikusi nuen itxura polita hartzen zuela. Gainera, ez nuen bakarrik idazten. Irakur zezaten ematen nien inguruko: senarrari, nebari, lehen gusinari... euren iritzia jasotzeko.

Eta hori egin eta gero guztion ondorioa izan zen merezi zuela argitaletxe bateri aurkeztea.

Nolakoa izan da liburua argitaratzearen prozesua?

“Amurrion martxoan egingo dut liburuaren aurkezpena”

“Fugit argitaletxeak azaldu du nire bigarren liburua izango dena argitaratzeko prestutasuna. 100 orri daramatzat idatzita”

Lehenik eta behin, oso zaila da argitaletxe baten interesa erakartzea. Nik, esate baterako, Planeta, Penguin eta horrelako argitaletxe handiekin diet ezta bidali ere egin liburuak. Hasteko, ez diete egile berriei erreparatzen eta eskuizkribuaren kopia egin behar da, postaz bidali... nire jatorrizko testuak 500 orrialde baino gehiago dauzka.

Bestalde, argitaletxe handiek ez daukate inolako interesik idazle berriekin; ez daude prest arriskuak hartzeko.

Horregatik, argitaletxe berrien aldeko apustua egin behar dugu; prest baitaude arrisku txikiak hartzeko eta egile berriei aukera bat emateko.

Orain liburua promozionatzeko garaia da, ez?

Bai, aurkezpenak egiteko asmoa daukat. Amurrion egingo dut lehenengoa, martxoan. Aurkezpena eta liburu sinatzea izango da. Bilboko La Casa del Libroekin ere harremanetan nago. Gasteizen ere egin nahi dut. Hemen, Melillan, idazleen elkarteak lokala utziko dit aurkezteko.

Liburuak indarkeria matxista du ardatz.

Abiapuntua galdera batekin sortzen da: denboran atzera egiteko gaitasuna izango bagenu, dakiguna jakinda, zer akats mota ez genuke errepikatuko?

Idea horrekin sortu zen liburua. Bestalde, indarkeria matxista gizar-tean dagoen arazoa da, eta konpondu ordez, badirudi okerrera egiten duela. Horregatik erabaki nuen hori jorratzea, emakumea naizen heinean kaltetua sentitzen bainaiz.

Melillan gauzak beste modu batean ikusten dira, eta batzuetan sutan jartzen naiz ikusten eta entzuten dudana.

Hala ere, itxaropenaren aldeko liburua da nirea; nahiz eta, gehienbat, azaltzen duen bortizkeria sufritzen duen emakume batek nola uzten duen bere burua egoera horretan. Jendeak askotan esaten du: “emakume honek zergatik ez duen salatzen, zergatik jarraitzen duen horrela...”

Askoz zailagoa da. Arrazoi psikologikoak ere badaude: autoestimua asko urratzen diete, menpekoak direla sinetsarazten diete... eta horrek azaltzen du zergatik ez duten salatzen, zergatik jarraitzen duten horrela...

Itxaropenaren aldeko aldarria da; bitzta alda daiteke.

Melillan, Amurrion edo beste nonbaiten girotu duzu eleberria?

Ez dut zehaztu. Hala ere, hemen go jendeak irakurri duenean, protagonista unibertsitatean eta hondartzan dagoela, guztiek esan dute Dostoin girotua dagoela.

Pertsonaiaren herria ere iparraldekoa da. Azken finean, nik ezagutzen dudanari buruz idazten dut. Ez dira herrien izenak aipatzen baina iparraldeko herriak dira.

Liburu berria egiteari ekin diozu?


Bai, nik ezin dut idatzi gabe egon. Egia da promozioak lan asko behar duela, baina nik idazten jarraitzen dut.

Dagoeneko 100 orrialde baino gehiago izkiriatu⁽¹⁾ ditut. Fugit argitaletxeak nire liburua argitaratzeko asmoa dauka.

Hiztegi lagungarria

izkiriatu⁽¹⁾, zirriboratu, idatzi

LIBURUA



Izenburua

Azul tormenta, lluvia añil

Argitaletxea

Tempus Fugit

Orri kopurua

439

Sipnosia

Ana 1999 urtean esnatzen da, berriro ere 18 urterekin. Horrela, iragana beste era batera biziz, aukera bat zabalduko zaio begien aurrean: bederatzi urtez bere senarra izan zen gizonaz maintemintzea ekiditeko aukera.



Mikel

Ayllon

IDAZLEA

_Kamerinoa

Zinemaren alde

a hasieratik hasi da kei-nuka. Besaulkian deseroso balego bezala hasieran, ipurdia batera eta beste- ra mugituz, arretoa sobera deitu gabe.

Krispetak irensteko behar baino zarata handiagoa egiten gero, ahoa nabarmen ireki eta ixten, ondoan nagoen hori ez beste inori enbarazurik egin gabe, oraindik.

Purrustaka hasi denean, ingurukoaren arretoa ere bereganatu du, eta egon da txssst lotsatiren bat egin dionik ere.

Espantuka hasi denean, orde, besoak airean nabarmenki astinduz, ez da egon ohartu ez den inor, eta handik behar baino lehenago botako gintuzten beldur izan naiz.

Egia esate aldera, ez genukeen gauza handirik galduko, baina kaleratuaren lotsa ez da izaten gauza samurra, batez ere adin batetik aurrera.

Eskerrak beste guztien burre-algara ozenez estali dituzten, azkenerako, Mariren kexu, ezinegon eta etsipenak.

Behingoz kanpora atera garenan, lotsagorritzeraino denon begiradak erakarri dituen ni izan ez banaiz ere, desentkusatzeko gogo piztu zait.

- Zer jakin behar nuen nik ba! Negoziotik aparte behar-ko lukeen udal zinema-aretoan espero izatekoa da kultura pixka bat eta ez espektakulu...

Ikusi berria zelan kalifikatu jakin ezinda geratu naiz, Mari erreskatara etorri den arte.

- Lasai, honek abizenak zortzi eta nahi beste gehiago, baina izenik ez du.



_kultura

_kultur leihoa



Txetxu Urkijo
ZINEMA

The Hateful Eight

Zuzendaria: Quentin Tarantino
Aktoreak: Samuel L. Jackson, Kurt Russell, Jennifer Jason Leigh...
Herrialdea: AEB
Iraupena: 167 minutu



Astehonetan Tarantinoren azken lana, "The Hateful Eight" (2015) izenekoa, gomendatu nahi dizuet. Pelikula interesgarria izateaz gainera, oso proposamen orijinala dela iruditu zait. Izan ere, western klaustrofobiko bat ikustea ez da oso ohikoa. Zinta osoak gela bat erakusten du, bertara iristeko protagonistek hartu behar duten bidean dauden paisaia ederrak kenduta.

Red Rockera doan diligentsia batek, elur-bisutsu batek eraginda, mertzeria batean osteratxo bat egin beharko du. Bertan, bidaiariak espero ez duten lagun talde bat topatuko dute.

Tarantinoren zortzigarren pelikula honek Tennesseeen munduratu zen zinemagilearen lanek dituzten ezaugarri guztiak barnebiltzen baditu ere, arestian esan bezala, ez-ohikotzat jo behar dugu. Pelikularen lehen zatian pertsonaien arteko elkarrizketek etengabeko tentsioa sortzen dute, nahiz eta tiro bakar bat ere ez egon. Istorioaren bukaeran, ordea, odola, bortizkeria inplizitua, umore ukituak, dialogo bihurriak... topatzen ditugu nonahi.

Zuzendari amerikarrak duen beste indargune bat, inolako zalantzarik gabe, aktoreengandik kalitatezko antzezpeneak eskuratzeko gaitasuna da. Ezin ukatu oraingo honetan berriro ere lortu egin duela. Jennifer Jason Leigh, Samuel L. Jackson edo Demián Bichirrek, besteak beste, karakterizazio borobilak gorpuztu dituzte. **Filma Amurrioko Antzokian egongo da ikusgai, otsailaren 27an eta 28an, 20:00etan.**

ARGAZKIGINTZA: Martxoan hasiko da Amurrioko Hiribildua XXXVII. Argazki Lehiaketa

Martxoaren 1ean ireki eta 31an itxiko da Amurrioko Hiribildua Argazki Lehiaketaren XXXVII. edizioan parte hartzeko epea. Aurreko edizioetan bezala, bi modalitate egongo dira: gai libreko argazkiena eta amurrioko irudiena. Amurrio.org web-gunean eman daiteke izena.



ANTZERKIA: Martxoaren 19an izango da Antzerki Jardunaldi Laburraren bigarren edizioa

Amurrioko Aimara Antzerki taldeak martxoaren 19an aurkeztuko du II. Antzerki Jardunaldi Laburra. Amurrioko Kultur Etxean eta La Casonan izango da jardunaldia eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte irango du. Ordu erdira antzezlan bat ikusteko aukera egongo da, lau guztira.



Eskualdeko zazpi lan "Ametsen Liburua" proiektuan



Eskualdeko zazpi lagun aritu dira proiektuan.

ERREDAKZIOA I

"Ametsen liburua", ia bostehun lagun artean osatutako egitasmoa⁽¹⁾, aurkeztuko da otsailaren 23an, Laudioko Herriko Plazako aretoan. Liburu horrek XX-XXI. mendeetako ehunka euskal errepresaliatu politikoren ametsak jasotzen ditu, era dotorean. Izan ere, oso edizio bereziko liburua da: ia mila orrialdeko eta 7 kiloko liburu zarrak da, modu txukun eta zainduan argitaratua. Errepresaliatu (presoak, deportatuak, iheslariak, torturatuak...) bakoitzeko bi orri ditu, argazki lagunduta.

Parte hartzea oso anitza da, ia mende bateko errepresaliatuen ametsen berri ematen duelako. Luzio Urtubiarekin hasi eta Joseba Sarrionandiarengana heldu arte

idazle asko daude. Ekarpen hauekin batera, ia berrogeita hamar euskal sortzailearen artelanak tartekatuta dira.

Proiektuan Aiaraldeko zazpi lagun aritu dira: Orozkoko Jose Anjel Aramendi; Laudioko Isidro Murga, Fidel Largarza, Pablo Gorostia, Mikel Etxebarria eta Joxe Blanco; eta Urduñako Aletxu Zobaran. Aurkezpenean Ametsen Liburua-ren bultzatzaile eta koordinatzaile izan den Jokin Urainek hitz egingo du, eskualdeko errepresaliatuekin batera. Liburua salgai egongo da bertan.

Hiztegi lagungarria

Egitasmoa⁽¹⁾, ekimena, proiektua



"EZ TIRO EGIN ANBULANTZIEI", BRAILEZ: ONCE erakundearen Bilboko delegazioak Mikel Ayllonen estreinako eleberria itsuentzako egokitua argitaratu du, brailez. Hiru liburukitan plazaratu dute nobela, eta erakundearen liburutegi zerbitzuaren bidez lortu daitezke hirurak.

Berlinale zinema jaialdirako hautatu dute "Escisión" filma



Euskal Zinemaren sailean egon da filma. Luis Vil

ERREDAKZIOA I

Amurrioko Luis Vil zuzendariaren "Escisión" filma Berlinale zinema jaialdirako aukeratua izan da. Izan ere, Zineuskadik stand bat jarri du European Film Market barruan. Pelikula euskal zinemaren katalogoan egon da festibalean. Luis Vi-

lek oso pozik dagoela adierazi du. Egileakustezuen ez zuela aukerarik izango filma horrelako esparruetan zabaltzeko, ekoizpen independentea baita berea. Otsailaren 11an hasi zen zinema jaialdia Berlinen eta bihar (otsailak 19) bukatuko da.



Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA

_Lurpetik

Prakagorridunen balentriak

Familiariet "sorgin" deitzen zaie baina "sorginon indarrak" ere direla diote Orozkon, haien jabeak sorginak direlakoan. Indartsu eta trebe ziren jendeez esaten zen prakagorriak zeuzkatela.

Itzina gainean den Itzingotiko artzain batek ei zeuzkan: ikaragarri zaluza zen, basa behiak nahi bezala harrapatzen zituen mendian. Sanantolin batzuetan, zezen plazara sartzeko ateak itxita zirenean, karrera hartu eta hesiaren gainetik salto egin zuen barrura. Gero, zahar eta ezindua zenean, gazteek esaten zioten: "Zuk lehen parte-txarrekoak ez zeunkazan?". Eta hark, haserre eginda: "Orain behar ñeukezan nik parte-txarrekoak, ez lehen! Lehen berez ñeukezan nik!". Ospetsuak dira Orozkon Axpuruko abade familiarduna eta haren "kriada". Behin, Ochomayo-ko zezenetara joan ziren hodei baten gainean prakagorrien indarrak. Gero, neskameak familiaren kutxa topatu eta zabaldu zuen: brau atera zitzaizkion euliak eta lan eske hasi zitzaizkion, baina ipintzen zien guztia berehala bukatzen zuten; eta berriz ere hegaz inguruka eta ausikika, behar gehiago gura zutela. Nafarrondoko errekatik Axpurura ura altzetako bahe batean agindu zien; familiariek buztinez eta bekorotzez behea zerratu eta hartan ura ekarri; eta urez gainezka Axpuru... abadea heldu eta euliak beren ontzira batu arte.

Oso aipatua da Nafarroan Joanes Bargoutakoa, Axpurukoa bezalako apez bat. Antzeko istorioak badira Zuberoan eta Biarnon. Piriñoetako beste lekuetan ere ezagutzen dira izaki langile eta aberatsarazleak, hala nola Gaskoinian lo Mandagot urre kakigilea (edo lo Mandragot, hau da, mandragora), eta Katalunian els mainarons, "canut" batean gordetzen direnak.

kirola

ESKIA

“Jende askok gurekin ikasi du eskiatzen”

JON ASPURU (Amurrio, 1960) Amurrioko Elur Taldeko lehendakariordea da. Taldearen informazioa emateaz gain, egun eskiatzeko dauden aukerak azaldu ditu.

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Zenbat urte daramatza Amurrioko Elur Taldeak martxan?

2000 urtean sortu genuen taldea. 16 urte daramatzagu, beraz. Garai onenetan laurhun bazkide baino gehiago izatera heldu gara. Gaur egun, ordea, berrehun inguru gaude.

Zergatik sortu zenuten taldea?

Garai horretan jende asko hasi zela eskiatzen ohartu ginen eta beste asko ikasteko gogoekin zeudela. Hasieran lagun talde txikia zena, talde handia bilakatu zen apurka apurka.

Neguan hainbat irteera antolatu dituzue.

Hamabostero hainbat txango⁽¹⁾ antolatzen ditugu Frantziako eski estazioetara. Iraupen eskia praktikatzeko, ordea, hemendik bertu geratzen gara, Lunadan edo Errioxan adibidez.

Antolatu dugun hurrengo irteera otsailaren 26tik 28ra izango da eta Baqueirara joango gara.

Asko gustatzen zaigu eski estazio hori, nahiz eta garestia izan. Oso ondo zainduta dago eta nahiko handia da.

Zer da irteera horretan egiten duzuen?

Eskualdeko jende askok gurekin

“Antolatu dugun hurrengo irteera otsailaren 26tik 28ra izango da, eta Baqueirara joango gara”

“Krisia dela eta, parte hartzea jaitsi da. Lehen eskia modan zegoen, gaur egun ez”

ikasi du eskiatzen. Izan ere, irteera guztietan begirale⁽²⁾ bat izaten dugu gurekin, bi orduz egun bakoitzean. Eskiak ez dakiten pertsonak berarekin egoteko aukera dute eta poliki-poliki eskiatzen ikasten dute horrela. Asko horrela hasi ziren.

Zelako parte hartzea dute irteera horiek?

Orain arte izugarriko parte hartzea izan dugu, behin baino gehiagotan eskualdetik bi autobus ateratu ditugu.

Baina orain, krisia dela eta, parte hartzea jaitsi dela esan beharra dago. Gainera, eskia modan egon zen arren, gaur egun moda hori ez dagoela uste dut.

Eskualdean eskia gustuko duen jende asko dago. Nora joatea gomendatuko zenieke?

Gu normalean Frantziara goaz beti. Iparraldean dagoenez elur gehiago eta hobea egoten da han. Horrez gain, prezioak merkeagoak dira, ez dituzu hemen bezalako auto ilarak jasan behar...

Eski estazio gehiago daude han hemen baino. Hemen egin dena azpiegitura guztiak Formigalen elkarrekin izan da, eta hori dela eta izugarriko auto ilarak sortzen dira. Frantzia ez, bailara batean hiru edo lau eski estazio daudelako.

Urrunago joatea pena merezi du?

Nahiz eta Frantziako urrunago egon, askotan denbora gutxiago ematen da bidaian. Batzuetan Jacatik Formigalera heltzeko ordu bat behar duzu eta... Bai, nire ustez pena merezi du. Ez bakarrik bidaia gutxi, han dauden erosotasunengatik ere.

Mendiko eskiaren praktika igo dela uste duzu?

Bai, izan daiteke. Jendeak eskiatzen ondo dakienean normalean mendiko eskira jotzen du, pista askotan aspergarria egiten zaiolako.

Baina horretarako teknika egokia izateko beharrezkoa da, oso arriskutsua izan daitekeelako. Teknikarik gabe mendiko eskia praktikatzeko ezinezkoa da, askotan bakarrik egon zaitezke, edozein elur mota topa dezakezu... Eta zerbait gertatzen garrantzitsua da nola jokatu behar duzun jakitea.

Gure taldean ez doa inor bakarrik mendiko eskia praktikatzera eta, horrez gain, ekipamendu guztia eramatea beharrezkoa da.

Hiztegi lagungarria

Txango⁽¹⁾, ibilaldi/Begirale⁽²⁾, monitorea /

VALDEZCARAY, ESTATUKO 10 LEKU ONENEN ARTEAN

Errioxan dagoen eski estazio txikia da. Valdezcarayko eski estazioa guztira 26 pistek osatzen dute. Zailtasun maila guztiko bideak daude. Orain 4 pista besterik ez dituzte zabalik: bi


berde eta beste bi urdin. 1.500 metroetatik 1.800 metrora bitartean eskiatu daiteke normalean. Estatuko 10 eski estazio onenen artean aurkitzen da eta eskualdetik 130 kilometrotara dago.



LUNADA, TXIKIA BAINA XAMURRA

Lunadako estazioa eskiatzeko 7 kilometroekin egokitutako eremua da, Espainiako txikienetarikoa. Burgosen dago, Aiaraldetik 75 kilometro, eta 5 pista

besterik ez ditu: 2 berde eta 3 gorri. Oso aproposa da eskiatzen ikasten dabilen jendearentzat, izan ere, ez ditu pista oso zailak eta nahiko luzeak dira.



BAQUEIRA, 33 PISTA

51 pista eta 2.400k metroko altuera duen eski estazioa da. Lleidan dago (Aiaraldetik 450 bat kilometrotara) eta egun ia pista guztiak dituzte zabalik. Bere

parean beste bi estazio ditu, bata Beret eta bestea, Bonagua. Azken bi hauetako ia pista guztiak 2000 metrotik gorakoak dira, eta Beret da handie-



PEYRAGUDES, 2.200 METROKO GAILURREKIN

51 pistaz osaturiko eski estazioa da. Pista batzuk 2.400 metro dituzte. Frantziako Pirinioetan dagoen eski estaziorik onenetarikoa da, hainbat zer-


bitzu eskaintzen baititu. Aiaraldetik 400 kilometrotara kokatuta dago, 60 kilometro ditu guztira eskia, snowboarda eta antzeko kirolak egiteko.



FORMIGAL ETA PANTICOSA, HANDIENAK

Eskiatzeko 176 kilometro eskaintzen dituzten bi eski estazio dira Formigal eta Panticosa. Guztira 147 pista dituzte. Bertako gailurrik altuenak 2.250 metro ditu.

Gaur egun, elur kantitatea dela eta, 95 kilometrotan barrena eskiatu daiteke: 15 Panticosan eta 80 Formigalen. Aiaraldetik 320 kilometrotara dago Formigal, Huescan.



_kirola

Espainiako Txapelketarako sailkatu dira Laudio Atletismo Klubeko jubenilak



Emakumezko jubenilen taldeko 6 kide. Argazkia: Laudio Atletismo Kluba

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Urtarrilaren 31an izan zen Euskadiko Kros Txapelketa Lasarten. Bertan Laudio Atletismo Klubeko emakumezko jubenilek 3.postua lortu zuten. Horregatik, otsailaren 28an Espainiako Kros Txapelketan

arrituko dira. Zazpi neskez osatutako taldeak ordezkatu du aurreko jubenil maila.

Eduviges Frutos arduratzen da neska horien entrenamenduez eta adierazi duenez ezustekoa izan da Espainiako Txapelketara joateko txartela eskuratzea. Bere iritziz, oso maila altua zegoen Euskadiko Txapelketan eta horregatik baiezta du taldea oso ondo aritu zela eta korrikalariek oso lasterketa ona egin zutela.

Gogor entrenatzen dabilta orain Besaide Astobiza, Ekhiñe Barinaga, Aitana Delgado, Maider Martin, Ane Aldaiturriaga, Naroa Mendez eta Iratxe Salazar, otsailaren 28an izango den norgehiagokahorretan ahalik eta hobekien jarduteko.

Martxoaren 6an izango da Artziniegako Mendi Ibilaldia

ERREDAKZIOA | Ganzorrotz Mendi Taldea

2016ko Martxoaren 6an "Yarri memoria" Artziniegako mendi ibilaldiaren VII. edizioa egingo du Ganzorrotz Mendi Taldeak.

Urtero bezala, bi ibilbide prestatu dituzte Artziniegako mendietan barrena: luzeak 23 km izango ditu eta mendizaleek Peñalba eta Otsa-timendientonorrak zapalduko dituzte. Laburrak, berriz, 11 km izango ditu eta Otsati mendira joango da, Soxoguti zeharkatuta herrira itzultzeko. Jatekoa eta edatekoa egongo da ibilbidean eta amaieran, frontoian, guzti-guztientzat.

Ibilaldi luzea 8:00etan abiatuko da Artziniegako frontoitik eta laburra ordu eta erdi geroago, 9:30ean. Izena webgunearen bidez eman daiteke otsailaren 27ra



arte. Dena dela, egunean bertan ere egongo da aukera: 7:00etatik 7:45era martxa luzerako eta 8:30etik 9:15era ibilbide laburre-rako.

ESKUPILOTA Bukatu da Herriaren XX. Eskuz Binakako txapelketa



Iragan ostiralean jokatu ziren finalak. Argazkia: aiaraaldea.eus

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Hiru mailetako partiduetako finalak jokatu ziren ostiralean Aretako Frontoian. Gaztetxoek kategorian Muguza laudioarrak eta Ollidenek ezin izan zuten Orue eta Gartzien aurkako norgehiagoka irabazi, eta azkenean 19-22 geratu zen markagailua.

19 urte azpiko mailan, bikote gorria gailendu zen hasieratik, Zu-

bizarreta eta Garmendia, eta 22-10 garaitu zituzten Arrizabalaga eta Salegi. Seniorretakoa, ordea, oso partidu parekatua izan zen. Hasieran urdinek (Labakak eta Telletxeak) aurrea hartu zuten eta ondoren Albaradok eta Zabalak. Alabaina, gero berriz ere gailendu ziren urdinak markagailuan, azkenean 17-22 emaitzarekin txapelketa irabaziz.



LAUDIO IKASTOLAKO KROSA: Izugarritzko parte hartzea izan zuen Laudio ikastolako Krosak. Eskolarteko Arabako Txapelketa lokatz artean pasatu zuten lasterkariak. Argazkia: Aitor Burgoa

LAUDIOKO MASTER KLASIKOA

"Txirrindulariak ez ezik, euria ere protagonista Master Klasikoan"



Iñigo Gonzalez de Tejada

Laudioko Master Klasikoaren VIII. Edizioa ospatu zuten larunbatean Laudion. 176 txirrindulari atera ziren lasterketa egiteko asmoarekin; elite, master 30, master 40 eta master 50ko mailako kirolariak, hain zuzen ere.

Izugarritzko euritearekin hasi zen froga. Txirrindulariek 78 kilometroko ibilbidea zeukatzen egiteko. Lau bira egin zituzten herritik eta ondoren Arespalditza, Zuaza, Okondo eta Garatera abiatu ziren berriz ere irteera puntuan helmugaratzeko.

Hasierako lau birak azkarrak izan ziren, 16-17 minututan egin zituzten. Lehenengo itzulian eror-

keta handi bat egon zen gainera, zeinetan hainbat lasterkari kontrola galdu zuten. Horietakoa batek ospitalean bukatu zuen alda-ka apurketa posible bat medio.

Hirugarren biran 14 txirrindulari aurrea hartu zuten eta pelotari 20 segundoko aldea atera zioten. Diferentzia handituz joan zen, ordea: laugarren biran minutu bateko diferentzia lortu zuten, bira handiko garaipena haien artean jokatzeko aukera eskuratuz.

14 txirrindulariak apurka apurka urruntzen joan ziren eta Garatetik David Garcia Cuesta izan zen helmugaratu zen lehenengo, metro batzuetako aldeare-

kin. Dena den, beranduago, txirrindularia lasterketatik kanporatzea erabaki zuten epaileek dortsala tapatuta eramateagatik. Hori dela eta, modu ofizialean, Ramon Javier Garcia Sanchez (Toyota Euskoauto), master 30 mailakoa, izan zen garailea.

Liskar apur bat egon zen epaileek hartutako erabakiagatik. Baina araudia jarraitu zutela baiezta zuten, eta aurrera jarraitu zuten. Elite mailan Javier Montillak (Zona Bike) irabazi zuen. Master 40 mailan Gartxot Gisasolak (Elo-rioko T.E) lortu zuen garaipena, eta Master 50ean Arsenio Gonzalezek (Artaxori).



176 txirrindularik parte hartu zuten Master Klasikoan. Argazkia: Irati Moreno Fernandez

_Herriko plaza

_agurrak

Bidali zorion agurra egunkaria@aiaraldea.eus helbidera otsailaren 26a baino lehen. Interneten zuzenean argitaratu ditzakezu aiaraldea.eus-eko komunitatean.



Unax

Zorionak Unax!!! 5 urte jada, ondo pasa txapeldun! Etxekoan partez musu haundi bat!

Etxekoak



Mari

Zorionak Mari! Zuretzat ez dira urteak pasatzen, beti bezain guapa eta kañera!

Betikoak



Aiara

Gure treparari maitiari musu asko bere urtebetetzean! Maite zaitugunuen partez!

Maite zaitugunak



Marene

Zorionak! 6 Urte!! Etxeko guztien partez muxu handi bat eta jarraitu beti bezain alai!! Askok maite zaitugu!

Etxekoak



Maialen

Zorionak Maialen zure zortzigarren urtebetetzean etxeko guztien partez, muxu haundi bat!!

Etxekoak

_denborapasak

	Ardiaren eme	DEITURA	Joan den urtean	Katuaren larrua
	Zubereraz, antxumeak	Mundua	Isurkari mota	
	Ez da bakuna			Tona, labur-labur
	Nafarroako herria			Jainko egiploarra
Babarrunak	Gizon izena	Gipuzkoako herria		
IZENA	Sagar-prentsa	Partitiboa-ren atzizkia	Adierazi, esan	Bokala
			Bokala	
Txosten mota				Bokala
Palisten lanabesak			Harrapa ezak!	Metalezko soka
			Euskal Herria Zuzenean	Kriptona
				(Infin.) Galdu
Presio unitate		Einsteinioa	Su bizi	
Gehiegi, sobera		Ogi, hitz elkartzeetan	Nori atzizkia	
		Ohore egin		
		Nitrogenoa		
Kentzen duena				

❖ Aiarako kuadrillako lehendakaria.

OSO ERRAZA

	2	6	9	1	7	5	3	
6	1				9		4	
	5	4			6	2		
	4		1		5		9	
1	2	8	9	3			7	
	9	3	7	4	8			
		9		4	3		8	
			8	7	9	4		
4	8	7			2	1	9	6

ERRAZA

	3	6		2		8	5
6		8	3	7		2	4
			8	4			
2			7			5	
3	5	7					8
			9	5	6	7	2
		2		6			
	7					4	
4	8		2	3			

ZAILA

		6					3
	2			5		1	
7	4				9	6	
7	4			3			
5	9	7				4	8
			8	4	7		
			8	7			3
3							5
	7	3	5	6	2		

OSO ZAILA

	1		2		6	3	7
	3	4					
2				8		6	
7				2			5
	9	3					
8	7		4				2
3		5			6		
					7	8	

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Kontuz ibili azkenaldian aukeratuak lagunekin. Betiko lagunekin izandako eztabaida dela eta lagun bila zabilta, zergatik ez konpondu haiekin dituzun gorabeherak? Denbora pasako da eta kidetasuna galtzeaz damutuko zara.



HERENSUGE

03.21 - 04.20

Azkenengo aste hauetan nahigaberen bat izan duzu, baina zu identifikatzen zaituen indar hori erakusgarria da oso. Aurrera egiteko kapaza zara beti. Baina ez zaituz gainontzeko guztiak salbatzen saiatu eta zure burua ere zaintzen ikasi.



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Aske bizi naiz eta, hilko banintz hobe? Zeinek sortu dezake sentimentu gazi-gozo hori? Olerki hutsak dira, edonor bere kabuz bizitzeko ahalmena baitu, zu berezia zara bai, baina horregatik ez zara salbuespen bat izango!



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Proiektu berriak askotan beharrezkoak dira lortu ez ditugun horiek ondo atera edo lortu ez direnean. Horrek ez du esan nahi gaizto gaituztenik. Askotan proiektu berean murgiltzeak besteengatik etekina ez ateratzea dakar.



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Zorion etxe honetako denoi! Zorionak zuen artean lortutako orekagatik! Bakoitzak bere tartea dauka eta ez du bestearena inbaditzen. Bakoitzak bere harri-koskorra ekarri behar du proiektu polit hori bete ahal izateko.



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Aspertuta zaude ordenagailuan besteen bizitzak arakutzen. Ez al duzu ikusten denbora aurrera doala eta haiengan ikusten duzun zorientasuna galtzen ari zarelako zure malkoetan itotzean?



GALTZAGORRIAK

02.19 - 03.20

Ez dira betiko garai onenak, baina ez badakizu lorpenak izateko ere denbora eman behar dela aisia galtzen ezta? Denok nahi dugu eroso bizi eta datozen aukerak guztiak alferkeriarengatik etortzea, baina gogoratu zuk egiten ez duzuna ez duzula inoiz lortuko!



LAMIA

04.21 - 05.20

Polit-politak dira zure begiak, baina ez kolorearengatik, islatzen duten zorientasun eta bakeagatik baizik. Distira horrek nahi duzuna lortzeko behar beste indarra emango dizu. Edozer lortzeko gogoaren seinale izateaz gain, edonor sorgintzeko kapazak diral!



BASANDERE

06.21 - 07.20

Nork ahaztu du lehenengo amodioa? Inork ere ez, baina zergatik beti lehengoak oraingoekin konparatu denborak ere gudan eragina izan duenean? lehen sentimentuek soilik balio zuten harremanetan, orain gure izaera jorratu dugu printzipio batzuk finkatuz.



JENTILAK

08.22 - 09.22

Bezperako azken orduetan efektiboagoa zarelako diogu egunerokoan egin behar duzuna ez egiteko. Azken orduko akatsak ere grabaagoak izan ohi dira azkar eta erre-pasatu gabe daudelako. Has zaituz agendatxo baten egin beharrezkoak banatzen.



MARI

10.23 - 11.22

Mari! Zelan azkenengo inauteriak beti jairik-jai zabilta baina mozo-rotzeko gogorik ez al duzu izan? Ondo ez zaudela pentsatu behar dugu orduan? Jaiarekin konpontzen dituzu sarritan zure buruhausteak, zentzugabekeri hutsa dela ohartu zara ezta?



SUGAAR

12.20 - 01.19

Gezurak aitzakia bihurtzen dituzu besteek egiten duten hori ez egiteko. Zergatik justifikatu egin nahi ez duzun hori? Zure buruarekin leiala izan, zure uste eta nahiak defendatu itzazu!

_irakurlearen txokoa

_agenda

02.18 OSTEGUNA

17:00 LAUDIO
AURKEZPENA
Gazte Danbadaren egitarauaren aurkezpena
Herriko Plaza

18:00 LAUDIO
HITZALDIA
Nola lortu gure seme-alabek euskaraz egitea, Kike Amonarriz Institutua

19:00 LAUDIO
HITZALDIA
"Egiptoko antzinako egunerokotasuna hilobien bitartez" Sonia Guerrini Kultur Etxea

19:00 OKONDO
UDAL BILERA
Gabonetako egitarauaren balorazioa eta Baserri Azoka antolatua
Kultur Etxea

02.19 OSTIRALA

17:00 LAUDIO
HITZALDIA
Artea eta edertasuna
Parisen
Kultur Etxea

19:00 OROZKO
BILERA
San Antolin jaiak antolatzeke batzarra
Kultur Etxea

19:30 ARRANKUDIAGA
BOLO TXAPELKETA
Arrankudiaga-Zolloko Gazte Asanbladak antolatuta
Bolatokia

19:30 ARESPALDITZA
AIARA BIRA
Lasterketaren aurkezpena
Nagusien egoitza

21:00 LAUDIO
X. URTEURRENA
Askaria eta Jam Session (saio inprobisatua) Plakton taldearen eskutik
Sorgin Taberna

KANDELA GAUA



02.19 OSTIRALA
Zuhatzako Txokoa
19:30 Dominik magoa
20:30 Afaría
22:00 Lobo and Carmine

23:00 LAUDIO
MOBILIZAZIOA
Sevilla II kartzelara
Institutua

23:30 AMURRIO
MOBILIZAZIOA
Sevilla II kartzelara
Telefonika

02.20 LARUNBATA

11:00 AMURRIO
GURASOLAGUN
Pizza tailerra
Refor

11:00 LAUDIO
GURASOLAGUN
Patinatu familian
Aldai Plaza

15:30 LAUDIO
FURBOLIN TXAPELKETA
Sorgin Taberna

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Mozorroak eta askaria
Parkeko ludoteka

17:30 OROZKO
IKASTAROA
Hilekoaren zikloa eta elikadura
Kultur Etxea (40 euro)

20:00 AMURRIO
ANTZEZLANA
Erdi bana
Amurrio Antzokia

20:00 ARTZINIEGA
LIBURU AURKEZPENA
"La piedra rota"
Etnografia Museoa

23:30 LAUDIO
X URTEURRENA
Akerbeltz
Sorgin Taberna

02.21 IGANDEA

07:30 OKONDO
MENDI IBILALDIA
Altunaga
Malkuartuko autobus bidegurutzeta

08:30 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Eskalada Rockopolisen, Iruñea
Institutua

11:00 ZUHATZA
UMEENTZAKO KIROLA XXVI.
Etxaurren Krosa
Ibaguen

12:00 URDUÑA
PILOTA
Umeen partidak
Frontoia

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
"For those rock", Laudio
Musika Banda
San Pedro Eliza

02.22 ASTELEHENA

17:00 LAUDIO
HITZALDIA
"Giharrak, gantza eta zahartzea"
Kultur Etxea

02.23 ASTEARTEA

18:00 ARTZINIEGA
BILERA
Erdi Aroko azoka antolatzeke
Udaletxea

19:00 LAUDIO
BATZARRA
Gardeako Santa Kurutze jaiak antolatzeke
Gardeako Gizarte Etxea

19:00 ARTZINIEGA
BILERA
Artziniegako jaiak antolatzeke
Udaletxea

19:30 LAUDIO
BILERA
San Roke jaiak egokitzeke
Kultur Etxea

19:30 LAUDIO
LIBURU AURKEZPENA
Ametsen liburu
Erabilera anitzeko udal aretoa

02.24 ASTEAZKENA

09:30 LAUDIO
IKASTAROA
Oratoria profesionala eta eraginkorra
Tokiko Garapen Agentzia

17:00 LAUDIO
HITZALDIA
Zahartze osasuntsua: erorketen prebentzioa
Kultur Etxea

18:00 ARTZINIEGA
MAGIA IKUSKIZUNA
Erretiratuen egoitza

02.25 OSTEGUNA

19:00 URDUÑA
HITZALDIA
Garapen ekonomikorako tresnak
Alhondegia

02.26 OSTIRALA

18:30 LAUDIO
ANDALUZIA EGUNA
Umeentzako marrazki lehiaketa
Andaluziar Etxea

19:00 LAUDIO
BERTSO ANTZERKIA
Bertsolaritzaren sekretuak: isilduriko emakumeen historia
Lanbide Heziketa

ZINEMA

02.20 LARUNBATA

"STAR WARS" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA
IKASTETXEA 17:30etan eta 20:00etan (3€)

02.21 IGANDEA

"PAPEREZKO HEGAZKINA" OROZKOKO DONIBANE ARETOA
16:30etan (3€)

"STAR WARS" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA
IKASTETXEA 17:30etan eta 20:00etan (3€)

"LOS CINCO Y EL SECRETO DE LA PIRAMIDE" AMURRIO ANTZOKIA 17:30etan (3,60 €)

"LOS ODIOSOS OCHO" DONIBANE ARETOA
19:00etan (3€)

"JOY" AMURRIO ANTZOKIA
19:30etan (4,80 €)

02.22 ASTELEHENA

"JOY" AMURRIO ANTZOKIA,
20:00etan, (3,60 €)

02.28 IGANDEA

"ALVIN Y LAS ARDILLAS" DONIBANE ARETOA
16:30etan (3€), AMURRIO ANTZOKIA 17:30etan (3,60 €)

"LA GRAN APUESTA" DONIBANE ARETOA
19:00etan (3€)

"LOS ODIOSOS OCHO" AMURRIO ANTZOKIA
19:30etan (4,80 €)

02.29 ASTELEHENA

"LOS ODIOSOS OCHO" AMURRIO ANTZOKIA
20:00etan (3,60 €)



LAUDIO
SORGIN
TABERNA
Zuñika Kurajo, 11

DOHAINIK !!

KOMEDIA
KABARETETA

JOSÉ ANDRÉS
Larunbata 27 22:00
Otsaila 27 22:00

Jimmy jazz gasteiz

OTS 18 // **MILLENCOLIN**
+ Templeton Pek
20:30 (25 € + gastuak / 30 €)

OTS 20 // **HAY POCO**
ROCK AND ROLL
"Tributo Jaialdia"
20:00 (10 € + gastuak / 13 €)

OTS 26 // **KUTXI ROMERO**
21:30 (10 € + gastuak / 13 €)

OTS 27 // **BELAKO**
21:30 (12 € + gastuak / 15 €)

MAR 04 // **MASTERS OF**
ROCK "Tributo Jaialdia"
20:00 (12 € + gastuak / 15 €)

Andre Maria Zuriaren Koratzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre
higiezinen agentzia

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
98 m², 4 gela, 2 bainugela, sukaldia balkoiarekin eraberritua, egongela handia, altzairuz hornituta, eguzkitsua, igogailua.
Erref.: 167.695

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 12.000 € BEHERATUTA!
77 m², 3 gela, bainugela eta sukaldia balkoiarekin, egongela, eraberritua, igogailua, eguzkitsua.
Erref.: 167.681

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 180.000 € (20.000 € BEHERATUTA!)
85 m², 3 gela, 1 bainugela, sukaldia esekitokiarekin, egongela, balkoia, trastelekua, igogailua, trenetik 5 min.
Erref.: 167.205

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 11.000 € BEHERATUTA!
95 m², 3 gela, bainugela, txukundegia, sukaldia, egongela, balkoia, igogailua, egoera bikaina.
Erref.: 167.606

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 150.000 € (24.000 € BEHERATUTA!)
70 m², 3 gela bainugela eta sukaldia eraberrituta, kanpoaldea, eguzkitsua, garajea prezioaren barne.
Erref.: 167.680

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 75.000 €
74 m², 3 gela, sukaldia balkoiarekin, egongela, bainugela, despentsa, eraberrituko.
Erref.: 167.694

www.etxaurre.com
946 72 85 50


_ezin galdu



XXIII. ETXAURREN KROSA: 2 urte gorako Aiarako hainbat umek parte hartuko dute Etxaurren Krosaren XXVI. edizioan. Ibagueneko atletismo pistan egingo dute lasterketa eta aurreko egunean 15:30etan nahi duenak lagundu dezake prestaketa lanetan.



KORRONTZI DANTZAN: Otsailaren 27an Oinkari eta Aiara Dantza taldeek elkarlanean aurkeztuko dute ikuskizuna Amurrio Antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko. Dantzak ez ezik, Korrontzi taldearen musika ere protagonista izango da.



Floren Usia



Asier
Rubio
BERTSOLARIA

_Leihotik

Egunerokotasuna

Metroko eskaileretan gora doan gorbata-duna, autoan lantegira zitu bizian abiatu den langilea, goizez bulego bateko langile eta arratsalde etxeko andrea den emakumea, 24 orduko langile ez aitortuak, pasealeku hutsak, tinta egarriz dauden gogoeta-orriak... Errutinaren adibide asko bururutzen zaizkit, baina ez nuke nahi horretan tematu, begiak kliskatzen ditugun bakoitzean horren argazki bat ateratzen baitugu. Pentsa zenbat diren ohera sartzerakoan. Egunerokotasunak irensten gaituen honetan, pertsona izateko astirik ez duen jendearen falta sumatzen dut, egonean dagoena, noizbehinka ezer egiten ez duena. Duela urte batzuk modan jarritako "murrizketa" hitzak uste baino gehiago barne hartzen du eta badirudi etorriak lauzpabost ordu galdu dituela, hain zuzen, gu izateko erabiltzen genituenak. Gizatasuna ere galtzen den zerbait da elikatzen ez bada, eta konturatu gabe makina bihurtzen gara, sentimenduak eta kezka pertsonalak maila baxuenean kokatzen dituen izakia. Bizitza inprobisatzeko edo barneko ahotsari entzuteko denborarik ez baduzu, zu ere horrelakoa zara.

Katia eta Alex Dominguez

"Quidditch mugglea ez da Harry Potterren liburuetan azaltzen dena, ez dugu hegan egiten"

KATIA DOMINGUEZek (Artziniega 2000) eta ALEX DOMIGUEZek (Artziniega 1995) Barakaldoko Bizkaia Boggarts quidditch taldean jokatzen dute. Bigarren postua lortu berri dute Espainiako Kopan.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Nola sartu zineten Bizkaia Boggarts quidditch taldean?

Alex: Lagun batek esan zidan taldeko bi pertsona ezagutzen zituela. Azkenean, iragan abuztua partean, gure buruari galdetu genion: "Eta zergatik ez dugu probatzen?". Orduz geroztik taldean gabilta.

Katia: Nire nebak esan zidan quidditch taldean nesken beharra zutela. Izan ere, kirol misto bat da quidditcha. Zazpi jokalaritik gutxienez bi beste sexukoak izan behar dira.

Nik esan nion entrenamendu batera joango nintzela eta gustatzen bazitzaidan taldean sartuko nintzela. Bi hilabete daramatzat.

Zuek jokatzen duzuen "quidditch mugglea" da. Hau da, aztiak ez diren praktikatutako quidditcha. Zer ezberdintasun ditu Harry Potterren liburuetan azaltzen den quidditcharekiko?

Alex: Jendeak esaten du guk praktikatzen duguna Harry Potterren liburuetan azaltzen den kirola dela; eta hori ez da egia. Dugun berdintasun bakarra baloi eta jokalarikopurua da.

Ez dugu hegan egiten. Jende askok galdetzen digu hori, korrika egiten dugu. Egin behar duguna zera da: baloia hiru uztaietatik sartzea.

Zer esango zeniekete quidditcha kirol friki bat dela pentsatzen dutenei?

Alex: Gurekin entrenamendu bat egiteko esango nieke kirol hau frikia dela esaten dutenei. Horrela gure artean maratoiak, errugbia, eskubaloia edota futbola bezalako kirolak egiten dituen jende asko dagoel aikusiko lukete. Ez gara denak asmatikoak.

Katia: Kirol guztiek izan zuten hasiera bat. Egia da kirol hau liburuetan hasi zela, baina beste kirol bat da, azken finean. Futbolariek ere hasiera batean friki batzuk zirela kontsideratu dezakegu, ba quidditcharekin berdin.

Espainiako Kopan bigarren geratu zarete. Beste erronkarik duzue buruan?

Alex: Apirilean European Quidditch lehiaketa egingo da. Championsaren antzekoa dena. Herrialde bakoitzean lehen eta bigarren postuan geratu diren taldeek parte hartuko dute. Gu, zoritxarrez, ezin go gara bertaratu, ikas-

ketengatik batez ere. Uztailean, berriz, Quidditch-eko mundiala jokatuko da, eta 25 herrialde egongo gara ordezkaturata bertan.

BIDEOA: Katia eta Alex Dominguezi eginiko elkarrizketa, osorik



ENPRESA OPARIAK

KAMISETAK, USB-AK, TERMOAK...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU!!!

GUREKIN
ERE
EUSKARAZI!



Grafik

PRODUKTU PROMOZIONALA///
JANTZI ZERBITZUAK///
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
prod@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com